

ZARAUTZ / Bi ipuin kontaketa gaur Sanz Enean

Sanz Enea Liburutegiak emakumeen egunaren inguruan eta irakurzaletasuna bultzatzeko, irakurketa gidak kaleratzeaz gain, bi ipuin kontaketa antolatu ditu gaur: bat haurrentzat eta bestea gazte-helduentzat. Lehendabizi, arratsaldeko 17:30tan 5-6 urteko haurrentzat Maite Franko ipuin kontalariarekin. Saioaren izenburua 'Filomena musugorri errege eta beste ipuin batzuk'. Ondoren, 19:00etatik aurrera helduentzako saioa, 'Zergatik ote?' izenburuarekin, nerabe, emakume edota helduentzat orokorrean zuzendurik. Adierazi ere, emakumeen egunaren inguruan Sanz Eneak liburu gida bat argitaratu duela. Bertan topatuko dituzuen titulu berriak, maileguan daude: emakumeek idatzitako genero bel-tzeko 12 titulu, 8 filma (DVD), emakumeari buruzko 10 titulu berri, 4 ipuin... Gogoratu, Sanz enea Liburutegiak, azken erosketetako buletina kaleratzen duela hilero. Martxoko haur eta helduen proposamenetan, idazle emakumeen tituluak aukeratu dira.